

⇒ Hizpide ⇒

Odensera gutuna

(Hans Christian Andersen en ipuinetatik bi mendetara)

SEVE CALLEJA*

Manu Lopez Gasenik itzulita



Irudika dezaket nola heldu zinen mundu honetara, 1805eko apirilaren 2ko hartan muturreko pobreziaren askan jaio zinenean. Aita, ezin frogatuzko jatorri aristokratikoan murgildutako zapata-konpontzailea izan zenuen, eta ama, berriz, eskeketasunetik bizi izandako irudimen izugarriko emakumea. Irudikatzen zaitut Odenseko kaleetako umeek zoro bat balitz bezala jazartzen zuten aitona haren magalean eserita, eta orobat irudika dezaket zure amonak leiho ondoan itxurazko lorategi baten gisa kutxetan landatuta zituen loreen usaina; hain zuzen, leiho horretatik zure aita ikus zitekeen, zure geroko liburuetara ihes egingo zuten hainbeste pertsonaien antzerkitxo zuretzat lantzen: eskaleak, iratxoak, beldurtutako umeak, gosearen eta hotzaren aurka harrotutako amak, botereak garaitutako zurea bezalako aitak. Eta amonarekin sarritan bisitatzen zenuen zahar-etxeko zoro haien oroitzapenetatik ebatsita bildu zenituen beste pertsonaia haiek ere bai, Ahatetxo Itsusi horrek.

* Seve Calleja irakasle eta idazleak Ahatetxo Itsusia ipuinaren txikientzako moldaketa plazaratu berri du Desclée argitaletxean.



Zenbait jendek oraindik ez daki *Sirenatxoa* delakoaren istorioa existitu egiten zela Walt Disney-k amaiera melengako film bihurtu aurretik. Zuk, Hans Christian Andersenek, maitagarri-ipuin eder gisa eskaini baino lehenagotik ere existitzen zela. Ondina baten eta gizon baten arteko maitasunaz mintzatzen zen elezahar batetik hartu zenuen maileguan. Aurretik, Antzinate Klasikoko, eta gero Erdi Aroko eta Erromantizismo moko poeta eta eleberrigile askok egin zuten bezala; haiek ere ezagun zuten gizaki batekin maitemindurik, maitatua izateko ametsa lortzearren gehien estimatzen zuenari uko egitera ausartu zen ondina haren mina. Zeure ipuinetako baterako aukeratu zenuenean, zeure istorio gogokoetako bat bihurtuz, besteek zinen bezalakoa onar zintzaten zenuen gogoia irudikatzen zuelako hautatu zenuela egingo nuke, baietz? Eta hor daukazu: geroztik hainbeste gustatu zitzaion daniar irakurleei, brontzezko eskultura bat eskaini ziotela Kopenhageko itsas bazterrean. Eta istorio hura nork bere erara kontatu du, deskribapen ederrak, edo musika edo izen eta pertsonaia berriak erantsiz... Baina istorio bera da, jakina. Eta beste hainbeste gertatu zen *Enperadorearen traje berria* izenekoarekin, gogokoen duzun beste kontakizunetako horrekin, mendeak lehenago Don Juan Manuel-ek jasotako *Los burladores del paño* istorioan oinarritua. Edo inspirazio-iturri izan zenituen elezahar eskandinaviar haietako batzuk... Izan ere, idaztean egiten zenuena betidanik egin izan dena da: idazle eta ipuin kutunenei, irakurtzen edo entzuten zenituenei, zeure omenaldia egitea. Ikusten duzunez, gerora zuri egin dizkizute omenaldiak: hortxe duzu, urrutira jo gabe, Saturnino Calleja argitaldaria, umeen logeletan barrena euritako zabalik ibilarazten zenuen iratxo hari *Fernandillo el Sueño* izena eman ziona... Literatura horrelakoa da, izan: ispilu-jolasa, norbere sentimenduak adierazteko bidea, dela irakurriz, idazleren baten obran antzemanaz; dela irakurritako hori nork bere erara adierazten saiatuz. Begira, Bernardo Atxagak, bere *Obabakoak* liburuan, horixe berretsi zuen, berak edo beste edozein idazlek dioena lehenagoko beste norbaitek esana zela gogorarazten digunean. «Idazleok ez dugu ezer berririk sortzen, istorio berberak idazten ditugu denok [...], istorio on guztiak idatzita daude jada, eta idatzita ez badaude, txarrak diren seinale». Eta orduan, zertarako idatzi istorio berriak?, galdetuko diogu geure buruari. «Jendeari ahaztu egiten zaizkiolako, eta idazle berrioi dagokigu haiek gogoraraztea». Quim Monzó-k ere antzeko iritzia du, diotenean jadanik kontatutakoa manipulaztea, kentzea edo ipintzea, itxuraldatzea, horixe dela literaturaren oinarria: ariman errotutako kontakizunak aitortzea. Ikusten? Ados zaudete hirurok. Literaturagile handien artean bizi zaretelako hirurok, eta ez dezagun ahaztu mendeetan zehar gure egile klasikoek imitazioan oinarritzen zituztela beren postulatu estetikoak; esan nahi baita egile batek, bere obran, natura imitatzeaz gainera, eredutzat zituen maisuak

ere imitatzen zituela, huraxe baitzen sortzaile bakoitzak bere maisuaren ezagutza sakona frogatzeko zuen bidea. Agian Disneyk Sirenatxo otzana Eric printzearen jaurgira eraman izana behin behinekoa da, beste manipulatzaile ausart batek itsaspeko jatorrizko bizilekura maitalea arrain bihurtuta berarekin daramala itzularazi arte...

Kontua da zu, Hans Christian Andersen, handien arteko gailurrean zaitugula. Baina, dena sailkatzeko gure joera horretan, zuri bi etiketa bizkarreratzea tokatu zaizu: bata, *haur ipuinen* egilea izatearena, eta bestea, aurrekotik ez oso urrun, *gabonetako kontakizun* melengen fabulatzailera izatearena. Honez gero jakingo duzu zeure ipuinen edizio gehienak *haur ipuinen* etiketarekin iristen zaizkigula –ziur aski ematen diezun samurtasun eta soiltasun narratiboagatik, nahiz eta ongi dakigun bizi duten tristezia, samina eta gordintasuna biltzen dituen goxokia besterik ez dela-. Badakigu, orobat, zure ipuinetako askori nahita erantsitako eguberri-giroa dariela, bai ume, jostailu edo animaliak diren pertsonaien jokalekua paisaia negukoa eta etxeak delako, bai atzean daramaten asmoagatik ere. Gogoratu besterik ez dago, bestela, *Pospolo saltzailea*, Gabon Zahar bateko kale gorrian hotzez akabatzen dena; edo *Izeia*, non gabonetako zuhaitza bera den bere bizialdi distiratsu bezain laburraren berri ematen diguna; edo *Txorien urte berria*, non hotzak hartutako txolarreei ulertezina egiten zaien gizakiek egun latz haietan erakusten duten poza; edo *Haritz zahararen azken ametsa*, non urte askotako zuhaitzaren desiorik biziena hain zuzen ere Gabon Gau hotz batean betetzen den. Baina ez zaitu kezkatu behar umeen ondoan koka zaitzaten; izan ere, etiketa horri esker gaur egun *Andersen Sariari* ematen diozu izena, haurtzarolari begira lan egiten duten idazle eta irudigileei bi urtean behin ematen zaien saririk garrantzitsuenak; orobat, jaio zinen eguna, apirilaren 2a, Haur eta Gazteentzako Liburuaren Nazioarteko Eguna gisa ezarri zuen IBBY erakundeak.

Azken batean, bihotzez eskertzen dizkizugu utzitako ehun bat ipuin horiek, tartean hain ezagunak diren *Ahatetxo itsusia* –gehien islatzen zaituena–, *Printzesa eta ilarra*, *Beruneko soldadutxoa*, edo aipatutako *Sirenatxoa*. Haietako gehienetan *zeure bizitzako ipuin* zinezkoaren gakoak ezkutatu dituzu, bere ingurutik baztertuta sentitu zen gizaki bakarti eta arraroaren obra baita, Ahatetxo Itsusi gizajo hori, eta, beste hainbeste egilek bezala, literaturaren baitan bilatu zuen bere arazo pertsonalen irtenbidea. Horrela ongi ulertzen da bizten dituzun objektu animatu eta heroi apal horiek guztiek zure fantasia guztien gako jo dugun hori adieraztea: handitasuna itxuraz txikia denaren atzetik ezkututzen delako horixe. Aspertu arte errepikatu diguzu idatzitako edo entzundakotik berregindako ehun eta hirurogeita ipuin eta koska horietan; horien artean bat gogorarazi nahi nizuke: gaixo dagoen neska baten leihoaren ondoan erretzen den ilarrarena; *Leka batean bost* zuen izena, eta idazteko erabiltzen zenituen





Oharrak

1. *El cuento de mi vida*, Ediciones de La Torre, Madril, 2005.

2. Daniar egilearen 200 urteurrena izan dela eta, askotariko berrargitalpen eta antologiak argitaratu dira, irudigile ospetsuek ilustratuak edo egungo idazleek berridatzita. Hona hemen batzuk: *Seis premios nacionales ilustran Andersen*, «Sopa de cuentos», Anaya; *Los mejores cuentos de Andersen*, «Colorín colorado» eta «Rascacielos» bildumetan, Everest; *Cuentos*, Círculo de Lectores/Galaxia Gutenberg, egilearen 43 ipuinekin; Gustavo Martín Garzo-ren berridazketak S.M.-n, edo beste zenbaitek Haur eta Gazte Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatzeko 2003an egindakoa OEPLren eskutik.

oinarrizko osagaiak biltzen ditu: tradiziozko euskarri bat, zure haurtzaroko bizikizunak eta kikildutako izakiak aupatzeko zure gogo. Badakizu, era horretan, «ume ipuina» «literatura mailara» igo duzula? Edo, behinik behin, zure antza izatera eraman duen ukitu pertsonala ematen jakin duzu, ahateen arteko beltzarga baztertua omen zinen horrek, literaturan proba egin zuen aktore, kantari, musikari eta dantzari gai frakasatu horrek. Literatura-ahalegin horrek poztu egiten gaitu guztiok eta, bistan da, askotariko omenaldien zordun egin zaitu, hala nola, New York-eko Central Park-en Carroll-en Alice-renaren ondoan duzun estatua, zuen omenez urtero egiten diren kanpoko irakurraldien partaide izan zaitezten.

Zure ipuinik ezagunenen artean,¹ zeure biografiari buruzkoak eman digu atentzioa, zeure buruaz egiten duzun idealizazioagatik, akaso zeure jatorri apala zein aldean eraman ohi zenituen bizi-gatazkak disimulatzearren. Idazlan hori 50 urte zenituela idatzi zenuen, hau da, ospaeren gailurrean zeundela eta Danimarkak XIX. mendearen erdialdean bizi izandako gatazka politikoen ondoriozko sentimendu nazional nabarmenaren pean. Zenbait testuz osatutako liburu horren aukeraketa eta danieratiko itzulpena Pilar Lorenzo irakaslearen esku etorri dira, eta egilearen jaiotzaren 200. urteurrena ospatzera datoz. Testu horien artean aurki daitezke haurtzaro eta gaztaroko oroitzapenak, egileak izan zituen gorabehera soziopolitikoak, Europako herrialde askotan zehar egindako bidaien kronika nobelatua, horien artean Espainiara egindakoa (Euskal Herriari buruzko pasarte laburren bat eta guzti), erromantiko frantses, ingeles eta aleman handiekin izandako topaketak (Victor Hugo, Dumas, Dickens, W. Scott, Heine, Hoffmann), eta ipuin ospetsuenen sorrera-prozesuaren berri.

Gaur, editore askok zeure obrarik famatuena argitaratuz² egin dizuten omenaldiarekin batera, eta jaio zinenetik 200 urte bete berri direnean, guk ere gogoan zaitugu distantziatik, distantzia horixe baita zure ondarearen itzela behar bezala estimatzeko neurririk onena. Zuk zeuk esan zenuen Italiarantz joaterakoan 1833an:

«Mendietatik urruntzean, orduan ikusten dira beren handitasun osoan, eta horixe bera gertatu zitzaidan maite ditudanekin joan nintzenean».

Eta horixe bera gertatzen zaigu zurekin, Hans Ahatetxo Itsusi miragarri horrekin.

Hitzordu

GALTZAGORRI ELKARTEA

Ale honetako *Hitzorduak* Galtzagorri Elkarteak aurreko kurtsoan proposatu eta burututako hainbat proiektoren laburpenak bilduko ditu.



1. Liburuen altxorra

Gipuzkoako zein Bizkaiko herri txikietako eskoletara bideratuta dagoen liburu mailegu zerbitzu berezi bat da. Gurrildun kutxa bat liburuz bete eta eskola txikietara eraman da, hilabete batez eskolan eduki dute eta bertako liburuak erabili dituzte. Liburutegi mugikor hau, ordea, ez da soilik eraman eta besterik gabe utzi. Haur eta gazte literaturan jantzia den dinamizatzaile baten eskutik, motibazio literarioa sustatzen duten saio desberdinak jaso dituzte haurrek. Saio hauetan dramatizazioak, ipuin kontaketak, hitz jolasak, poemak oinarri dituzten dinamikak... landu dira besteak beste.

Honez gain, Liburuen altxorrak bere apaletan gorderik dituen liburuak erabili ahal izan dituzte haurrek eta hauetan aurkitu dituzten istorioez gozatu. Haur eta eskola bakoitzak berarentzat egokiena den moduan erabili du zerbitzu hau; zenbaitetan zaharrenek liburuzain papera bete dute, besteetan oporraldietan etxeak liburuz hornitzeko balio izan du.... Honela, guztiek ere erabilpen aberatsak eman dizkiote altxorrari.